

3.4 AZKEN PROIEKTUA

> Nire egunerokoa



Helburuak

- Ikasitako edukiak eta egiturak erabiltzea.
- Euren eguneroko ohiturez idaztea eta hitz egitea.

Prozedura

- Euren eguneroko ohiturez hitz egingo dutela azaldu.
- Posible izanez gero, umeek euren eguneroko gauzak egiten dauden bitartean, argazkiak egin ditzatela: gosaltzen daudenean, eskolan, etxekolanak egiten...
- Argazkiak eskolara ekarri eta egokienak aukeratu.
- Argazkiak "nire egunerokoa" fitxan itsatsi eta argazkiz argazki deskribatu.
- Ume bakoitzak ahoz bere eguneroko ohiturez hitz egin. Ez dezatela fitxan idatzitakoa irakurri, helburua kontatzea da.

Oharrak

- Oso garrantzitsua da ume bakoitzak bakarka lan egitea eta hezitzaileak banakako zuzenketetarako denbora hartzea.
- Joxe eta bere lagunen "nire egunerokoa" fitxak erabili eredu gisa.